



**ELKARTEETAN
GENERO
IKUSPEGIA
SARTZEKO
JARRAIBIDEAK**



Leioa
BERDINTASUNA



Leioa
BERDINTASUNA

berdintasuna@leioa.eus | 94 607 25 70

Zein da gida honen helburua eta nori dago zuzenduta?

Leioako Udalak, udalerriko elkarteetan jardueraren bat gauzatzen duten pertsona guztiei, gauzatzen dituzten proiektu eta jardueretan eta erakundearen zereginen genero-ikuspegiak izan behar duen txertaketara hurbiltzeko eskaini gura du gida hau.

Horretarako, planteatzen dizkizugun galderei erantzutea proposatzen dizugu, eta, zure erantzunak bat baldin badatoz hemen ematen direnekin, baliteke gida hau interesgarria izatea.

Goazen !!!



Garrantzitsua iruditzen al zaizu gure udalerriko elkarteek emakumeen eta gizonen berdintasuna kontuan hartzea, bai eskaintzen dituzten jardueretan eta zerbitzuetan, bai barne egituretan?



~~bai~~

ez

Elkarteak eta horiek osatzen dituzten pertsonak eraldaketarako eragileak dira, eta gizartearekin elkarreragiten dute, inpaktuak eta aldaketak sortuz. Horrek gizarte-erantzukizunarekin lotzen ditu, bai erakundeen barruan, bai dauden ingurunean. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egiteak duen garrantzia ulertzen badute, gizarte justuagoa eta bidezkoagoa sortzen lagunduko dute.

Beraz, gure udalerriko elkarteetan genero-ikuspegia txertatzeak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta genero-arrazoien-gatiko edozein diskriminazio mota desagerrarazteko tresna martxan jartzea dakar:

- Gure erakundeen eremuan.
- Gure jarduera gauzaten dugun testuinguruan.
- Gure xede den biztanlerian edo kolektiboan.

Hau da...

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzen laguntzea indarrean dagoen legeria betetzetik harago doan gaia da. Justizia, koherentzia eta etika kontua da, eta, zelan ez, gure udalerriko elkartei esanahia ematen dieten eginkizun eta balio nagusietako bat.





Baina ba al dakizu zer esan gura duen elkarte batean genero-ikuspegia txertatzeak?

bai

ez

Genero-azterketa gure esku-hartze eremuetan txertatzeak errealitate bera behatzea dakar, baina begi desberdinekin. Genero-ikuspegiaren begirada neutrotik, emakumeen eta gizonen beharrak eta betebeharrak desberdinak direla eta, beraz, gauza desberdinak eskatzen dituztela konturatzerara eramango gaituen beste begirada batera igarotzea esan gura du. Denbora batez argazki bat (errealitatea) behatuko bagenu eta, bat-batean, lupa bat emango baligute (generoaren azterketa), oharkabean pasatu zitzaizkigun xehetasunak ikusi ahal izango genituzke irudian. Beraz, ordura arte behatutakoa berriro interpretatu beharko litzateke.

Horretarako zer ari den gertatzen ulertzeko, galdera hauek egin al dizkiozue zuen buruari?

Askotan, gure elkarteetan, emakumeen partaidetza handiagoa izan dadin saiatzen gara, baina gero, benetan, oso gutxi dira parte hartzen dutenak, ahalegin handiak egin ditugun arren.





Galdera zuzenak eginez eta genero-azterketa aplikatuz, nolabait guztiz ezezagunak ez zaizkigun arren, batzuen eta besteen parte-hartzean, baliabideetarako sarbidean, ordezkaritzan eta abarretan dauden desberdintasunei buruzko zenbait egoera ulertarazten dizkiguten alderdiak azaleratzen dira. Gizonengana eta emakumeengana modu berean iritsi gura badugu, ezinbestekoa da "lupa" hori aplikatzea.

Elkarte-sarearen barruan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko herri-administrazioak gauzatzen ari diren estrategiek helburu hori bilatzeko neurriak bultzatzea dakarte, baina elkarte osatzen duzuen pertsonak ba al duzue genero-ikuspegia zuen jarduera-eremuetan txertatzeari buruz behar den ezagutzarik?



A. Bai, behar diren ezagutzak ditugu.



B. Ezagutzaren bat badugu, baina ez dakigu zelan jarri indarrean.



C. Benetan gai berria da gure elkartearentzat eta, batzuetan mugak aurkitzen ditugu zenbait laguntza eta diru-laguntza eskatu ahal izateko.

Zuen elkartearen kasua B eta C laukiekin bat badator, ez izutu!!!, egoera hori oso ohikoa dela esan behar dizuegu, eta, genero-ikuspegia nahiko kontzeptu hedatua izan arren, ohikoa dela zenbait kontzeptzio okerrekin lotzea, hala nola:

- Generoaz eta berdintasunaz hitz egitea soilik emakumeei zuzendutako proiektuak eta jarduerak gauzatzea dela pentsatzea.
- Emakume edo gizon izateak gure gizartean dituen inplikazioen sakoneko azterketa egin gabe datuak sexuaren arabera bereizita edukitzea nahikoa dela pentsatzea.
- Proiektu eta jarduera neutroak gara daitezkeela pentsatzea, hau da, mundu guztiarentzat berdin, konturatu barik mundu guztia ez dela berdina (adinagatik, jatorriagatik, erlijioagatik, etab.) eta emakumeen eta gizonen beharrak, itxaropenak eta motibazioak ere ez direla berdinak.

Hori dela eta, genero-ikuspegia gure erakunde, programa eta jardueretan txertatzeak zer dakarren ulertzeko beharrezkoa da zenbait ezagutza espezi-fiko eskuratzea.

Zure elkarteak genero-ikuspegia zelan txertatu jakiteko izan behar dituen oinarrizko kontzeptuetara hurbiltzea interesatzen al zaizu?



bai

ez

Zure erantzuna baiezkoa izan bada, abiapuntu gisa ezagutu behar dituzun alderdiak aurkeztuko dizkizugu, zuen elkartearen eguneroko jardunean genero-ikuspegia txertatzen ohitzen hasteko.

Gure gizartean, gure generoak gure izateko eta lan-merkatuan, familian, aisialdiko jardueretan, jaietan, erabakiguneetan... aritzeko moduak baldintzatzen ditu. Jakina, horrek ez du zerikusirik gure biologia izatearekin gure gustuak, joerak, beharrak, gaitasunak... zehazten dituen, prozesu kultural oso batekin baizik. Bertan, familiaren, eskolaren, komunikabideen, gure ingurunearen, komentario jakin batzuen, hizkuntzaren eta abarren bitartez, rol, estereotipo, balio eta jarrera desberdinak esleitzen zaizkigu gizonei eta emakumeei. Horrek markatzen du, batetik, gizartean aritzeko dugun modua, eta, bestetik, gizarteak zein modutan ematen digun partaide izateko aukera.

Eta arrazoia ere ez zaio falta: emakumeei, emakume izateagatik familiaren zaintzaz arduratu behar zutela esan zieten, janariak prestatzen ikasi behar zutela, josten, lisatzen, garbitzen jakin behar zutela, senar bat bilatu behar zutela, ezkontzen zirenean lana utzi behar zutela, hau da, soilik etxean jardun behar zutela. Jabetzen al da gizarte hau zenbat talentu galdu duen?


Ai, gaur egungo emakumeek dituzten aukerak izan banitu!!!



Prozesu hori zelan gauzaten den laburbildu beharko bagenu, eskema hau izango litzateke:

Jaiotzen garenean, eta jaio aurretik ere, gure genitalen bidez, gure gizarteak sexu biologikoa esleitzen digu era automatikoan, hau da, emeak edo arrak gara. Sexu biologikoa esleitzen den unean, modu banaezinean esleitzen da generoa, emakumea edo gizona, eta, horrekin batera, genero bakoitzak berezko zat jotzen dituen ezaugarri guztiak. Horrela, feminitatea eta maskulinitasun hegemonikoa ezartzen dira.

Badira kategoria bitar horretatik ihes egiten duten anatomiak dituzten pertsonak, baina gure gizarteak ikusezin bihurtzen, diskriminatzen eta zapaltzen dituen errealitateak dira.



Genero-sozializazioa:

Prozesu kultural horren bidez pertsonok genero-aginduak barneratzen ditugu gure bizitzan, hau da, gizarteak emakumeei eta gizonei esleitzen dizkien rola, balioak edo jarrerak.



Feminitate Hegemonikoaren genero-aginduak

Genero femeninoaren estereotipoak:

Mendekoak, emozionalak, entregarako eta sakrifiziorako gaitasuna, ezegonkorak, ahulak...

Emakumeen rola. Eremu Pribatua

Ugalketa - Etxe barruko lana

Emakumeen sexu-orientazioa

Gizonak desiratzen dituzte

Maskulinitate Hegemonikoaren genero-aginduak

Genero maskulinoaren estereotipoak:

Independenteak, gogoetsuak, arrazionalak, indartsuak, lehiakorak, gogorak...

Gizonen rola. Eremu Publikoa

Produktiboa - Etxetik kanpoko lana

Gizonen sexu-orientazioa

Emakumeak desiratzen dituzte

“Ez da emakume jaiotzen, emakume egin giten da”

Simone de Beauvoir

Desberdintasunaren ondorioak gizarteko eremu guztietan

HEZKUNTZA: Prestakuntza-segregazioa, emakumeek (zientzialariak, idazleak, filosofoak...) gizadian egindako ekarpenak eskola-curriculumetan ikusezin bihurtzea, emakumeen erreferente gutxi...

OSASUNA: Emakumeen gainkarga mentala lanaldi bikoitzaren ondorioz, zaintzaileen (gehienak emakumeak) osasunaren kaltetzea, androzentrismoa zientzia biomedikoan...

ENPLEGUA: Kristalezko sabaia, zoru itsaskorra, soldata-arraila, lan-prekarizazioa emakumeengan (Kontraturik gabeko lanen kontzentrazio handiagoa, aldi baterako kontratuak eta lanaldi partzialak)...

FAMILIA-ERANTZUKIZUNEN BANAKETA DESBERDINA: Lanaldi bikoitza, amama esklaboaren sindromea, zaintzaren derrigortasuna emakumeengan, ondorio negatiboak enpleguan...

EKONOMIA: Pobreziaren feminizazioa, ugalketa-ekonomiaren ikusezintasuna eta doako zaintza-lana (emakumeen esku dago), emakumeen lanaren gutxiespena...

KOMUNIKABIDEAK: Emakumeen gorputza gauza bihurtzea, ekoizpena eta emakumeen ekarpena ikusezin bihurtzea hainbat esparrutan (politikan, kulturean, kirolean, ekonomian, etab.), sexismoa...

ERABAKIAK HARTZEKO GUNEAK: Emakumeen ordezkartza eskasa, emakumeak gune horietan sartzeko oztopoak, gizezkoen lidergoen inposaketa...

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA: Indarkeria sinbolikoa, psikologikoa, fisikoa, ondarezkoa, ziberjazarpena, sexu-jazarpena, feminizidioak, indarkeria matxistaren naturalizazioa, bortxaketaren kultura...

Gizarte gisa, ezin dugu gauzak euren kabuz aldatuko direnik itxaron, edo desberdintasunak biologian oinarrituta argudiatu. Gure esku dago desberdintasun horiek ez errepikatzeke eta betikotzeko behar den eraldaketa sortzea .

Beraz, zer izan behar da kontuan elkartean barruan gauzatzen diren ekintza motei buruz pentsatzeko orduan?



- Generoak pertsonen bizitzan eta aukeretan zein eragin duen ikusarazi behar da, gure zerbitzuak eskaini gura badizkiegu.
- Jabetzea zeintzuk diren gure gizartean, oro har, eta gure inguru hurbi-lenean betiketozen ari diren desberdintasunak eta diskriminazioak. Horrek, horien existentzia ez bultzatzeko eta berdintasuna lortzeko benetako aldaketak sortzeko aukera emango digu.
- Programak, zerbitzuak eta jarduerak abian jartzeko orduan genero-rolak eta -estereotipoak kontuan ez hartzeak horiek errepikatzea ekar dezake, eta, beraz, ez dira gure auzoetako emakumeen eta gizonen errealitate eta beharretara egokituta egongo.
- Ez da ziurtzat jo behar inoren laguntza behar duten pertsonak, adingabeak zein helduak, zaintzarekin zerikusia duten jarduera guztiak emakumeen erantzukizuna direla, eta euren baino ez diela mesede egiten. Ezinbestekoa da ulertzea zaintza gizarte osoaren eta gizartea osatzen dugun pertsona guztien erantzukizuna dela, generoa kontuan hartu barik.



Baina, gure elkarteetan genero-ikuspegia txertatzeak zerbitzuetan eta jardueretan soilik pentsatzea esan nahi al du?



bai

ez

Ezer baino lehen, galdera horri erantzuteko, argitu behar da garrantzitsua dela gure udalerriko elkarte-sarearen aniztasun handia kontuan hartzea. Elkarte bakoitzak bere berezitasunak ditu, eta horiek bakar eta berezi bilakatzen dituzte; hau da, elkarte osatzen duten pertsonen kopurua, elkarte osatzen duten kideen ezaugarriak eta funtzioak, eskaintzen dituen zerbitzuak eta jarduerak nori zuzentzen zaizkion, zer helburu planteatzen dituen, zer helburu dituen, eta abar.

Ezaugarri horiek guztiak ezagutzea funtsezkoa da; izan ere, eskaintzen dituen jardueretara eta zerbitzuetara mugatzeaz gain, genero-ikuspegia elkartearen beraren barruan sartu, eta, beraz, elkartearen barne-ezaugarrietara egokitu behar da.

Hauek dira gure erakundeetan genero-ikuspegia txertatzeko eman beharreko pausoak:

1. pausoa.

Gizarte-erantzukizuna.

Emakumeen eta gizonen aukeraberdintasuna elkartearen lehenetsuneko konpromiso gisa onartzea.

2. pausoa.

Sentsibilizazioa eta Prestakuntza.

GenGenero-ikuspegia txertatzen lagunduko duten ezagutzak eta tresna guztiak izatea.

3. pausoa.

Begirada eraldatzea.

Emakumeak eta gizonak euren aniztasun guztiekin aztertzea. Bai elkarteko kideak, bai haien zerbitzuez baliatzen diren herritarrak.

4. pausoa.


Barrura begira.

Elkartearen barruan aukeraberdintasunerako politika eramatea.

5. pausoa.

Kanpora begira.

Proiektu, programa eta jardueretan emakumeen eta gizonen beharrak eta eskaerak kontuan hartzea.



Eta eskura ditugun estrategiak hauek dira:



Genero-Zeharkakotasuna

Estrategia horri esker, errealitateari begiratzeko modu berria gara dezakegu. Emakumeen eta gizonen baldintzak, posizioak eta premiak hartzen ditu kontuan, bai gure erakundeen barne-funtzionamenduan, bai gauzatzen ditugun programa, proiektu eta jardueretan.

Lehen ikusi dugun genero-errealitatearen azterketa gure elkartearen jarduera guztietan aplikatzea da, bai funtzionamenduan eta barne-dinamikan, bai gure baliabideen erabiltzaileei bideratzen dizkiegun zerbitzu eta ekintza guztietan.

Ekintza positiboko neurriak

Ekintza positiboak jardunbide edo sistema sozialen emaitza diren diskriminazioak konpentsatzen edo zuzentzen ahalegintzen diren neurriak dira.

Estrategia mota horiek, gure erakundeetan genero batek ordezkariak eskasa duela hautematen dugunean hartzen dira. Esate baterako, zaintza-eremuetan, tradizioz gizonek ordezkariak txikia izan duten lekuetan, gizonen ordezkariak orekatuko duten berariazko neurriak, edo/eta emakumeek botere- eta erabaki-eremuetan, betidanik emakumeek ordezkariak txikia izan duten guneeetan, duten ordezkariak txikia orekatzen lagunduko duten berariazko neurriak.

Ahalduntzea eta parte-hartzea

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan ahalduntzea sistema patriarkalaren ondorioei aurre egitera bideratutako estrategia da, emakumeek erabaki- eta botere-guneetan modu aktiboan sartu, egon, parte hartu eta esku har dezaten. “Ahal izatea” esan gura du, hau da, emakumeek euren posizio pertsonala, soziala, ekonomikoa eta politikoa indartzea.

Estrategia horrek hainbat fase ditu. Hasiera batean, kontzientzia hartze indibiduala da. Horri esker, emakumeen eta gizonen desberdintasun-baldintzei aurre egiteko beharrezkoa den konfiantza lor daiteke. Behin hori lortuta, hurrengo pausoa emakumeen antolakuntza kolektiborako tresnak eskuratzea da. Espazio horietan, oztopoak aztertzea eta mugatzen gaituzten egiturak eraldatzea lortzen da, azken batean, gure gizarteko eremu publiko eta pribatuatan aldaketak sor daitezten.

Zure ustez, genero-ikuspegia txertatzea, emakumeei zuzenduta dagoen eta berdintasuna eta feminismoa helburu duen elkarte motari baino ez dagokio?

?

bai

ez

Horrelako elkarteek berdintasuna sustatzeko estrategiak erabat txertatuta izan baditzakete ere, baliteke batzuetan kontzeptu teorikoak eguneroko errealitate praktikora egokitze mugak izatea. Horregatik da garrantzitsua hori egin ahal izateko tresna guztiak eskura jartzea.

Baina, batez ere, azpimarratu behar da genero-ikuspegia txertatzea ez dagokiela soilik berdintasuna helburu duen eta, beraz, feministak diren erakundeei, aitzitik, helburu komunak lortzeko eta harremanak izateko elkartu diren pertsonen osatutako erakunde guztietan egin behar da. Azken batean, partaidetza komunitarioaren bidez, irabazi-asmorik gabeko eta parte diren komunitatearen onerako, kultura-, aisia-, eta gizarte-jarduerak edo antze-koak gauzatzen dituzten antolakuntzako egitura guztietan.

Berdintasuna sustatzea ez dagokie soilik emakume feministen elkartei.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunak gizarte osoari egiten dio mesede, eta, beraz, guztion onerako lan egitea gizarteko eragile guztien erantzukizuna da.

Eta hasi ginen bezala amaitu behar dugu...

Emakumeak eta gizonak gizartean gauden eta parte hartzen dugun moduetan aldaketa sozio-ekonomiko handiak eta errealitate berriak gertatzen ari diren garai baten lekuko gara. Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna gure elkarte-sarearen eginkizun nagusietakoa dela planteatzea, guran zeharkako eragina duen eraldaketarako erronka da.

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egitea onuragarria da gure auzo eta hirietako kide garen guztiontzat; izan ere, horrela, gizarte justuagoa eta bidezkoagoa garatzen laguntzen dugu, generoaren ondoriozko diskriminazio mota guztiei amaiera emanez.

Horregatik, Leioako Udalak berdintasuna bultzatu gura du gure udalerrian, elkarteek gure udalerriko pertsonekin duten hurbiltasunarengatik eta harreman zuzenarengatik duten garrantzia azpimarratuz. Horregatik, baliabide berriak eman gura dizkiegu, gizarte justuago eta bidezkoagorako aldaketa sustatzeko eta bultzatzeko.

Zuen elkartetik, zuen esku-hartze eremuan genero-ikuspegia txertatzeari eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko estrategiei buruzko informazio gehiago jaso gura baduzue, jar zaitezte harremanetan bide hauen bitartez:

berdintasuna@leioa.eus | 94 607 25 70



Leioa
BERDINTASUNA

